

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 256 plaza eskaintzen ditu langabetuentzako 15 prestakuntza-ikastarotan

*Zabalik da izena emateko epea; prestakuntza-ikastaroak martxoaren 20tik ekainaren 2ra bitartean hasiko dira Foru Komunitateko 9 herritan.*

Lunes, 17 de marzo de 2014

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) 256 plaza eskaintzen ditu 15 prestakuntza-ikastarotan. Ahal dela langabetuentzat izango dira, eta datorren martxoaren 20tik, osteguna, ekainaren 2ra bitartean hasiko dira. Zabalik da izena emateko epea. Ikastaroei, baldintzei, herriei eta ikastaroak egingo diren prestakuntza-zentroei buruzko informazio guztia [NEZen webgunean](#) dago ikusgai.

Gainera, NEZek 76 plazako beste 4 ikastaro antolatu ditu. Horietan izena emateko epea amaitu da, plazak bete egin direlako. [Enplegu-agentzietan](#), ikastaroak emango diren prestakuntza-zentroetan edo [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) gunean eman ahal izango da izena. Azken kasu horretan, ikastaro bakoitzari buruzko informazioaren ondoan dagoen inprimakia bete behar da.

Doako prestakuntza-ekintzak Altsasun, Burlatan, Elizondon, Lizarran, Imarkoainen, Irunberrin, Iruñean, Tafallan eta Tuteran egingo dira.

Izena emateko epea oraindik zabalik duten 15 ikastaroetatik 8tan (135 plaza), ikastarora doazenei euren lanbide-gaitasuna ziurtatzen dieten profesionaltasun-ziurtagiriak emango zaizkie.

Oro har, ikastaroak bai langile aktiboek bai langabetuek zuzendurikoak dira (azken horiek indarrean den lan-eskaeraren txartel eguneratua izan beharko dute), baina langabetuek emango zaie lehentasuna.